

ABAO TXIKI

**Bizkaia**  
bizkaibus

Bizkaibusek operara hurbiltzen zaizu  
Bizkaibus te acerca a la ópera


2023/2024

19 ABAO TXIKI DENBORALDIA  
TEMPORADA DE ABAO TXIKI



X. Montsalvatge

# El gato con botas



Urtarrilak/Enero '24

3, 4, 5

**Eszena-zuzendaritza/**

**Dirección de escena:**

Alfonso Carraté

**Ekoizpena/Producción:**

ClassicVet

Arriaga Antzokiak eta ABAO Bilbao Operak  
elkarlanean antolatua / Una colaboración  
del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera



ABAO | BILBAO  
OPERA

Laguntzaileak  
Colaboradores

Euskadi, argiaren, bion onura



# Aurkibidea



Katu honek abestu egiten du!	.....3
Baina... denek abesten dute eta!	.....6
Errotari-familia bat... katu batekin!	.....8
Jo dezagun pianoa!	.....9
Animaliak musikaren erritmoan	.....11
Fitxak	.....13



Txikienetzako testuak letra-tamaina handiagoan idatzita daude, eta ikur hau dute aurretik.



Helduentzako testuetan, testuingurua eransteko, ikur hau jarri da aurretik. Informazio hori txikienekin parteka daiteke, nahi izanez gero.

Atribuciones: icono «Note» por asol\_studio de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com); icono «Rat» por Iconriver de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com); iconos «Family», «Children», «Party», «Musical Note» de [www.flaticon.com](http://www.flaticon.com)

## Katu honek abestu egiten du!



«Bazegoen Katu jauna... aupa plum!». Zer? Ez dakizue zein den katu hori? «Katu botadun» ospetsua? Edo izena marrazki bizidunetako filmeren batengatik egiten zaizue ezaguna? A...! Hasiak zarete kontatuko dizuegun istorioan murgiltzen... «Katu botaduna» opera ikustera gonbidatu nahi zaituztegu, izen bereko ipuinean oinarritutako obra. Ez zaizu ezaguna egiten? Bada, orduan, irakur itzazu ikur honekin zuretzat adierazitako paragrafoak. Ziur emanaldiaz askoz gehiago gozatuko duzula, ikusten ari zarena segituan ulertuko duzulako. Zatoz gurekin istorio txundigarri hau ezagutzera!



Baina, ezer baino lehen, badakizu opera zer den? Operak antzokian antzezten diren istorioak dira, agertoki batean, pertsona askoren aurrean, eta pertsonaiek, hitz egin beharrean, abestu egiten dute! Dibertigarria dirudi, ezta?

Haiek kantatu bitartean, musikariek beren instrumentuak jotzen dituzte, eta notak abesten laguntzen diete, denek batera doinu egokiak sortzeko. Opera talde-lana da!

Opera pentsatu eta idatzi dutenak ere talde bateko kideak dira. Istorioa idazten duen pertsonari libretista esaten zaio, «libro» (liburu) hitzaren txikigarritik eratorrita, liburutxo. Eta musika idazten duena konpositorea da.



Elkarrekin, istorioak kontatzeko bestelako modua lortzen dute, istorio dibertigarri bat musika itsaskorrarekin batuta, antzokitik ateratzen zarenean nahi beste aldiz kanta eta errepika dezakezun musikarekin, hain zuzen ere.

Jada existitzen den istorio bati musika jarri behar zaionean, lagun hauek biek lehenik eta behin jatorrizko kontakizuna irakurtzen dute. Eta halaxe hasiko gara gu: ipuinaren hasiera irakurtzen:

*Errotari bat hil zenean, haren hiru semeek errota bat,  
astakilo bat eta katu bat besterik ez zuten jaso.  
Seme zaharrak errota hartu zuen.  
Erdikoa astakiloaz jabetu zen.  
Gaztearen herentzia bakarra katua izan zen.*

Jatorrizko ipuina ezagutzen ez baduzu, lasai, pixkanaka-pixkanaka kontatuko dugu eta. Hori bai, nola amaitzen den jakiteko, antzokira etorri beharko zara!



Katu bitxi baino bitxiago eta oso azkar honen istorioa antzina-antzinako ipuina da, eta ez dakigu nork idatzi zuen. Hemen ikusten duzun gizon honek, Charles Perrault jaunak, paperean jaso gabe zegoela jakin zuenean, berak idaztea erabaki zuen, jendeak ez zezan ahaztu. Baina ipuin hau ez ezik, beste asko ere idatzi zituen. Ezagutzen duzu besterik? Saiatu badakizun besteren bat gogoratzen. Beharbada, hori ere Perraultek liburu batean jaso zuela jakingo duzu!

Ez bazara gogoratzen, galdetu zure ingurukoei. Oroitzen lagunduko dizute.





Charles Perraultek (1628-1703), Parisen jaio eta zenduak, obra serio eta larriak idatzi zituen, irudimenetik edo entretenimendutik gutxi zutenak. Frantziako akademian lanpostu garrantzitsu bat galdu eta emaztea hil ondoren, bere seme-alabetako gazteena jaio zenean, hainbat ipuin bildu zituen: batzuk berak jasotako ahozko tradizioetik hartuak ziren, beste batzuk berak berridatzi zituen, eta zenbaiten jatorria ezezaguna zen. Perraulten aztarna pertsonala amaieran ikasbide moral eta sozial gisa eranstean duen irakaspenean islatzen da, batez ere.

1697an, «Ama antzararen ipuinak» argitaratu zuen, maitagarri tradizionalen prosazko zortzi ipuinen bilduma. Bertan agertu zen, lehen aldiz, «Katu botaduna», honako hauekin batera: «Bizar urdin», «Txanogorritxu», «Basoko loti ederra», «Mari Errauskin», «Maitagarriak», «Erpurutxo» eta «Riquet kalparduna». Gerora, bertotan idatzitako bi eta nobelatutako bat gehitu zituen: «Griselida», «Irrika irrigarriak» eta «Asto larrua».

Idazlearen garaian, maitagarrien ipuinak modan egon ziren aristokraten eta burgesen artean, baina ez haurren artean. Ipuinak nekazarien, umezainen eta neskameen ahozko tradizioari zegozkion, haiak ezagutarazten zizkieten belaunaldi berriei. Umezain eta neskame haietako asko landa-eremuetakoak ziren, eta horrexegatik izan ziren hain garrantzitsuak bildumak, «hiriko» gizonek osatuak. Izenburuko «Ama antzara» kultur tradizio baliotsu ezin garrantzitsuagoaren transmisioaren bermatzaile izandako emakume haien alegoria da, haiena bereziki.

Bitxia bada ere, ipuinen loraldia urte gutxiren buruan eten zen, besteak beste «Mila gau eta bat gehiago» argitaratu zelako. Izan ere, obra horrek berehala erakarri zuen publikoaren irudimena eta iritzi ona, eta, hala, ekialdeko kontakizun exotikoen zale bihurtu zen.

Ehun urtez baino gehiagoz ahaztuta egon ostean, ipuinek XIX. mendearen erdialdean berreskuratu zuten beren protagonismoa, neurri batean Gustave Doréren ilustrazioekin argitaratu ziren berrargitalpenei esker, zeinak orduko haurrei oparitu egiten zitzaizkien.





## Baina... denek abesten dute eta!



Opera honetan, pertsonaia guztiek kantatzen dute, ez katuak bakarrik! Errotariaren seme gazteak, erregeak, printzesak, ogro gaiztoak. Baina badakizu bakoitzaren doinua desberdina dela?

Pertsonaia bakoitzak maila jakin bateko notak abesten ditu, eta, nota-maila horren arabera, ahots bakoitza modu zehatz batean izendatzen da.

Gure pertsonaia nagusia, katua, tarteko erregistroan kantatu behar duen emakume batek antzezten du; hau da, nota baxuak eta altuak abestu behar ditu. Mezzosopranoa da.



Printzesak, berriz, denbora gehiago ematen du nota altuagoak abesten, beraz, badakigu sopranoa dela.

Nota oso baxuak abestuko lituzkeen neskarik balego, kontraltoa litzateke.

Mutilen artean, errotariaren semea dugu, nota altuagoak abesten dituen, halaber: tenorra da.



Erregearen erregistroa tartekoagoa da, horregatik da baritonoa.



Eta ogroa, bere ahots sakon eta beldurgarriarekin, baxua da.

Abesten ez duen pertsonaia bakarra untxi zuri oso xelebrea da. Errepara iezaiozu arreta handiz istorioan zein eginkizun duen jakiteko.



Gorago laburki azaldutako ahots lirikoaren sailkapena haien arteko desberdintasun nagusiak ulertzeko abiapuntu sinplifikatua da. Benetan, bereizketa konplexuagoa da, giza ahotsen aniztasuna ia mugagabea baita.

Ahotsaren beste ezaugarri batzuek –tinbrea, bolumenaren araberako tamaina edo malgutasuna, adibidez– aldatu edo baldintzatu egiten dute abeslariaren jarduna kantatzeko orduan, erregistroak edo hedadurak baino askoz gehiago. Hala, operan oinarrizko izena jasotzen duten rol asko (sopranoa, tenorra, etab.) ahots desberdinek kanta ditzakete, arrakasta handiagoz edo beste era batean, baina balio berarekin. Hain zuzen ere, zenbait operak hainbat bertsio dituzte, abeslari protagonistaren ezaugarrien araberakoak.

Ahotsen sailkapenaren bilakaera historikoak, historian izandako paregabeko abeslari ezagunen ahots errepikaezinek (pertsonaia jakin batzuk haientzat konposatu ziren propio) edo beste une historiko batzuetan ahots zehatz batzuen eskasiak ere eragin handia dute egun opera jakin batzuen antzezpenari heltzeko orduan.





## Errotari-familia bat... katu batekin!



Badakizu errota zer den eta zein eginkizun duen?

Errotak haizeak, urak edo animalien indarrak mugiarazten zituen; barruan, harri handi batzuek, biraka eta biraka, landako zerealak hauts fin bihurtzen zituzten, alegia, irin.



Irina okinek okindegian edo gozotegian egunero ikusten dituzun ogia eta beste gozoki batzuk egiteko erabiltzen dituzten oinarrizko osagaietako bat da. Beraz, errota bat zuten pertsonak, errotariak, ziurtatuta izaten zuten ogia eta zerealez egindako beste jaki batzuk jan ahal izatea.

Errotariaren semea triste dago, aita hil eta gero katu bat besterik ez duelako jaso harengandik eta ez dakielako bizimodua nondik aterako duen, baina berehala egiaztatuko du katu oso azkarra dela eta lagundu egingo diola. Erregearen eta printzesaren lagun bihur dadin ere lortuko du! Horretarako, katuak zenbait opari eramango dizkie eta inguruko jendea errotari gazteaz ondo hitz egiteko konbentzituiko du. Are gehiago, edozein animalia bihurtzeko gai den ogro boteretsuari aurre egingo dio, errotari gaztea printzesarekin ezkotzea lortzeko...







Jatorrizko ipuinaren arabera, katuak bota batzuk eskatuko dizkio errotariaren semeari, dotore egoteko. Oinetako horiekin animalia-ale batzuk ehizatuko ditu eta erregeari «Carabasko markesaren» izenean eskainiko dizkio; katuak asmatutako izena da, bere jabeak titulu hori duela sinetsarazteko. Erregeak eta printzesak hura ezagutzeko interesa agertuko dutenez, katuak aurrea hartuko du eta bidean topatzen dituen nekazariari eskatuko die markes jaunak errentatzaile gisa zein ondo tratatzen dituen kontatzeko erregeari. Erregeak gero eta interes handiagoa izango du eta, halako batean, ibai batera iritsiko dira. Orduan, katuak eskatuko dio errotariaren semeari arropa zarpailak erantzeko eta uretan biluzik sartzeko. Jarraian, katua garrasika hasiko da laguntza eske, «markesa» itotzen ari delako plantak eginez. Erregea eta printzesa bidean geldituko dira eta horrela ezagutuko dute markestzat jotzen duten mutikoa. Katuak aholkatuta, errotariaren semeak «bere gaztelura» gonbidatuko ditu, benetan ogro gaizto batena denera. Katuak aurrea hartuko die, berriro, bidea garbi uzteko eta istorioa sinesgarria egiteko.

## Jo dezagun pianoa!



Antzokian entzungo duzuen operako abeslariak pianoak lagunduta egongo dira. Munduko instrumenturik moldakorrenetakoa da, hau da, edozein instrumenturi edo ahotsi laguntzeko balio du, genero eta abesti-mota desberdinetan. Horrexegatik esaten da instrumentuen erregea dela.



Antzokietan eta kontzertu-areto handietan, musikariek «isats-piano» delakoan jo ohi dute. Handia eta luzanga denez, bere doinu-bolumena ozenagoa da eta mikrofonorik gabe entzun daiteke.

Etxe modernoetarako, antzokiko agertokia baino txikiagoak eurak, piano bertikalak sortu ziren, «paretako piano» ere izendatuak, txikiagoak direnak eta bolumen baxuagoa dutenak, nahiz eta oso antzera dabilzan.



Pianoa hari-instrumentua da. Izan ere, teklak, benetan, hari-sistema bat jotzen duten palankak dira; hala, tekla bat sakatzeari uzten diozunean, soinua desagertu egiten da. Pedalak soinuen iraupena aldatzeko edo, tekla sakatzeari utzi arren, haiei eusteko erabiltzen dira. Kaxa harmonikoaren tamainaren arabera, pianoaren bolumena ozenagoa da eta soinuek denbora gehiago irauten dute.



Hona hemen bi esteka pianoaren sistemaren funtzionamendua ikusteko eta entzuteko, baita teklak eta pedalak sakatu bitartean nola dabilen jakiteko ere:



[Nola funtzionatzen du isats-pianoak? – 1.zatia \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=...)




SAKATU

CTRL +



[Nola funtzionatzen du isats-pianoak? – 2.zatia \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=...)



KLIK





## Animaliak musikaren erritmoan



Katuak gainditu beharko duen azken proba, erregea errotariaren semea printzesarekin ezkontzeko moduko gaztea dela konbentzitzeko, edozein animalia bihurtzeko gaitasuna duen ogro gaizto baten gazteluan gertatuko da.

### 1. Lehoia:

Katuak, ohi bezain azkarra bera, lehenengo animalia basati eta beldurgarria bihurtzeko erronka egingo dio: lehoia. Entzun zer musika dagoen ogroa animalia izugarri hori bihurtzen denean.



<https://youtu.be/6ygw2M3Pxr4>



### 2. Papagaia:

Ondoren, katuak papagai dotorea bihurtzeko erronka joko dio. Irudika dezakezu une horretako musika nolakoa izango den?



<https://youtu.be/1qgujJqU5qs>



### 3. Sagua:

Amaitzeko, animalia txiki-txikia bihurtzera desafiatuko du: sagu! Hona hemen une horretan entzuten den musika:



<https://youtu.be/BjljvvP7cTw>



Imajina dezakezu zer gertatuko den ipuinaren amaieran eta nola lortuko duen ogroa garaitzea?

Presta itzazu gatza eta piperbeltza!





Ipuinaren amaieran, katuak, ogroa bere tranpan erori eta sagu bihurtu dela ikusita, jan egingo du. Erregea eta printzesa ogroaren gaztelura iristen direnean, katuak errotariaren semearena dela sinetsaraziko die. Hala, erregeak printzesarekin ezkontzeko baimena emango dio mutikoari. Hauxe da Perraulten jatorrizko ipuinaren irakaspena:

Esperientzia oso atsegingarria izan arren

aitak semeari utzitako herentziaz gozatzea,

abilezia eta trebezia dira

mutiko baten aberastasunik handiena,

eta ez oinordetzaz dagozkion ondasunak.



Bukatzeko, hemen dituzu beste jarduera batzuk etxean lasai asko egiteko eta, horrela, antzokira zatozenerako katuaren mundua apur bat gehiago ezagutzeko. «Katu botaduna» operako musika entzunez egin ditzakezu!